



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urriaren 14a

117. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A :

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro jar ditzan Nafarroako Foru Komunitatearen laneko arriskuen prebentziorako ordezkariaren figura eta dinamizazio-taldeak. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berreskura dezan Nafarroako Foru Komunitatearen laneko arriskuen prebentziorako ordezkariaren figura. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da legedia alda dezan, halako moduan non bateagarria deklaratu ahalko baita Gizarte Segurantzaren araubideko pentsio publikoak kobratzea eta egile-eskubideengatik diru-sarrerak edukitzea. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeen eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan dislexia duten ikasleei hezkuntza-inklusioaren printzipioa bermatzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da inola ere ez dezan aplikatu uztailearen 29ko 310/2016 Errege Dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioak arautzen dituenak. EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren armarrak jar dezan Nafarroako Jauregiaren fatxada nagusian, Foruaren Hobekuntzak ezartzen duenaren arabera. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskoletan haur-pobrezia prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema bat ezar dezan Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako Departamentuen artean. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, Osasun Mentalaren Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baititu Landa Emakumeen Nazioarteko Eguna, Elikaduraren Nazioarteko Eguna eta Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna direla-eta Nazio Batuen Erakundeak egin dituen adierazpenak. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere gaitzespena adierazten baitu Iruñeko Artzapezpiku Jauregiko fatxadan egindako eraso dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes adierazten baitie edoskitze naturala sustatzeko Nafarroan garatzen ari diren kanpainei, edoskitze naturalaren astea dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Haiti Errepublikako herriaren saminarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baititu Defentsa Ministerioak Bardeako tiro poligonoan programatutako su errealeko maniobra militarrek, eta bertan behe-
ra utz daitezzen exijitzen baitu. Akats zuzenketa (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei begira NUPen finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuari atxikitako Nafarroako Gobernuaren haur-eskolei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Ernai taldeko militanteek Nafarroako Jauregiaren fatxadaren aurrean barne ministro Jorge Fernández Díaz jaunari “faxista” deitzen zion pankarta bat jarri izanari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak 2017an lan-eskaintza publikoa deitzeko asmoa izateari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak sindikatuekin eta enpresa-erakundeekin adostuko duen 2016tik 2019ra bitarteko Enplegu Plana. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (17. or.).
- Galdera, “Lan osasunaren plana betetzeko inbertsioak” kontusailaren betetze mailari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (18. or.).
- Galdera, 2016-2017 ikasturterako beka-deialdi orokorrari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Sarrigurenen institutu bat eraikitzeko asmoa izateari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, 2015ean eszedentzia hartzeko laguntzak eskatu zituzten langileei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (19. or.).
- Galdera, jakitekoa suhiltzaile izateko probak gaintu dituzten lehiatzaileak zergatik ari diren egiten Osasun-larrialdietako Teknikari izateko Erdi Mailako Heziketa Ziklo bat Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako zinemagintzari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, familientzako 2016ko politikei buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean atzeritartasun-txostenak egiteko jarduketa-protokoloari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (22. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro jar ditzan Nafarroako Foru Komunitatearen laneko arriskuen prebentziorako ordezkariaren figura eta dinamizazio-taldeak.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berriro jar ditzan Nafarroako Foru Komunitatearen laneko arriskuen prebentziorako ordezkariaren figura eta dinamizazio-taldeak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Garapen Ekonomikorako Batzordean eztabaidatzeko.

Enplegu Ministerioaren datuetan oinarrituta Comisiones Obreras sindikatuak egindako eta batzordean 2016ko urriaren 5ean aurkeztutako azterlan baten arabera, Nafarroa da lan-istripuak gehien igotzen ari diren erkidegoa. Azterlan horren arabera, baja hartzea eragin zuten 4.378 lan-istripu gertatu ziren Nafarroan 2016ko lehen sei hilabeteetan.

Uxue Barkos lehendakariak Parlamentuan zehaztu zuenez, igoera hori istripu arinei zegokien, baina kontua da igoera horren errua dela, neurri handi batean, Nafarroako Gobernua Lan Prebentziorako ez inplikatzeara. Horren froga da, adibidez, Nafarroako Foru Komunitatearen laneko arriskuen prebentziorako ordezkariaren figura eta dinamizazio-taldeak desagertu direla.

Aurrekontua handitu beharra dago, eta, batez ere, kontzientziazioa handitu beharra dago langileak eta langileen osasuna babesteko premiari dagokionez, eta hori guztia elkarriketa sozialaren bidez egin beharra dago, langileen ordezkariak solaskide hartuz. Beharrezkoa da azterlan bat, sakonki aztertuko duena zeri zor zaion lan-istripuen igoera hori, zeinaren ondorioz, zoritxarrez, Nafarroa lehendabizikoa baita lan-istripu gehien gertatzen den autonomia erkidegoen zerrendan. Eta beharrezkoa da azterlan horretatik abiatuta beharrezkoak diren neurriak hartzea ez dadin berriz ere gerta lan-istripu bakar bat ere, larria nahiz arina izan.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berriro jar dezan Nafarroako Foru Komunitatearen Laneko Arriskuen Prebentziorako Ordezkariaren figura, zeina legegintzaldi honetan kendu baita, bai eta dinamizazio-taldeak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-mahai bat sor dezan lan-arloko solaskideekin, lan-istripuen kopuruaren igoeraren arrazoiak aztertzeko eta igoera hori eteteko behar diren neurriak ezartzeko.

Iruñean, 2016ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berreskura dezan Nafarroako Foru Komunitatearen laneko arriskuen prebentziorako ordezkariaren figura.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berreskura dezan Nafarroako Foru Komunitatearen laneko arriskuen prebentziorako ordezkariaren figura.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldea eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak enpresetako prebentziorako ordezkariaren figura aitortu zuen, eta figura hori aurrerapen handi bat izan zen lan-arriskuen prebentzioan, zeren eta enpresarekiko lankidetzaiturri garrantzitsu bat izan baitzen prebentzio-planak abian jartzeko eta haien jarraipena egiteko, enpresen esparruan lan-arriskuei aurrea hartzeari begira.

Hala eta guztiz ere, zenbait egoeratan, ordezkariaren bidez hori ez da guztiz operatibo gertatzen, eta horixe da, bereziki, enpresa txikietan gertatzen dena, haietan lan-harremanen desarazteaz nagusitzen baita; are sei langiletik beherako enpresetan ere gertatzen dena, haietarako ez baitu legeak prebentziorako ordezkariaren figura aurreikusten eta, horrenbestez, enpresaren barruko parte-hartzea, arlo horretan, ez baita existitzen.

Egitate horrek baldintzatu du negoziazio bidez beste figura batzuk agertzea; esate baterako, lurraldeko prebentzio-ordezkariarena. Hartara, ber-

matu egiten da langileek ordezkariaren parte-hartzea izatea lan-arriskuen prebentzioaren arloan, legeko ordezkariaren bateraturik ez dagoen enpresetan –daukaten langile kopuruagatik–, edo hala-korik izanda ere, operatiboa ez den enpresetan.

Egoera horrek justifikatu zuen “Lan-arriskuen prebentziorako Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkariaren” figura sortzea, zeina indarrean egon baitzen Nafarroan 2015era arte, eta enpresa txikietan prebentzioa garatzeko gakoa izan zen, hain zuzen ere enpresa horietan ez baitago sindikatu-ordezkariarik eta haietan gertatzen baitira lan-istripu gehienak. Honakoak ziren Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkariaren figurak prebentzio-alarrean esleituta zeuzkan eginkizunak:

- Lantokietara bisitak egitea.
- Enpresaburuari aholkua ematea lan-arriskuen prebentzioarekin zerikusia duen guztiari buruz.
- Enpresarekin batera prebentzio-ekintzaren hobekuntzan parte hartzea.
- Lan-arriskuak prebentziorako araudiaren beteazpenean langileen lankidetzaz bultzatzea eta sustatzea eta hari buruz informatzea.
- Enpresaburuarekiko kontsulta, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legean aipatutako erabakiak betearazi baino lehen.
- Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete dadin zaindu eta kontrolatzea.
- Teknikariei lagun egitea prebentziorako ebaluazioetan, edo laneko eta gizarte segurantzako ikuskatzaileei lagun egitea.
- Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legean ezarritako mugekin, lan-baldintzei buruzko informazioa eta dokumentazioa eskuratu ahal izatea.
- Osasunean kalteak eragiten direnean, bertaratu ahal izatea, haien gertatu direneko inguruabarraz ezagutzeko.

Eginkizun horiek betetzeari utzi egin zaio, prebentzioaren arloko lurraldeko ordezkariaren figura kendu baita. Ordezkari horrek Nafarroako 5.600 enpresa txiki eta ertain baino gehiago artatzen eta bisitatzen zituen urtero, baina prebentziorako hori egiteari utzi egin zaio, horren ordezkari inongo beste programarik ez baita ezarri.

Bestalde, azken urte hauetan, prebentzioaren arloan murrizketak ikusi izan ditugu enpresetan, eta horietako askotan prebentzioa jada ez da inbertsio gisa hartzen, baizik eta saihestu daitekeen gastu bat; horrenbestez, ez da betetzen lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia, ez dago prebentzio-neurrien plangintzarik eta prestakuntza eta informazioa falta dira.

Berriki, Enpleguko Ministerioaren txosten baten bitartez jakin dugu atzerapen handia gertatzen ari dela Nafarroan lan-arriskuen prebentzioaren arloan. Nafarroa da lan-istripuak gehien hazten ari diren erkidegoa. 2016ko lehenengo hiruhilekoan, lan-istripuak % 15 baino gehiago hazi dira, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Nafarroako Foru Komunitateak pairatzen dituen lan-istripuen kopuruak kontuan hartuta,

lan-arriskuen prebentzioaren kultura sustatzeko eta Nafarroako enpresetan segurtasuna eta osasuna bultzatzeko beharra dela eta, honako erabaki-proposamena aurkeztu dugu, istripu eta gaixotasun profesionalen gehikuntzari buelta emateko helburuarekin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lan-arriskuen prebentziorako Nafarroako Foru Komunitatearen Ordezkararen figura berreskura eta 2017an ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mintzakide sozialekin negoziatzea eta adostu dezan, elkarrizketa sozialaren esparruan, lan-istripuen aurkako talka-plan bat.

Iruñean, 2016ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da legedia alda dezan, halako moduan non bateragarria deklaratu ahalko baita Gizarte Segurantzaren araubideko pentsio publikoak kobratzea eta egile-eskubideengatiko diru-sarrerak edukitzea.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita legedia alda dezan, halako moduan non bateragarria deklaratu ahalko baita Gizarte Segurantzaren araubideko pentsio publikoak kobratzea eta egile-eskubideengatiko diru-sarrerak edukitzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari eskiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Kulturaren arloan aukera ederra daukagu ekonomia bultzatzeko eta enplegua sortzeko, sektore hori erabakigarri eginez hazkunde-eredua aldatzeko, halako moduan non talentua, ezagutza eta sormena izanen baitira hazkunde horren oinarri nagusiak. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren kultur estatistiken arabera, kultur arloko enpleguaren bolumena milioi erdi pertsona baino gehiagokoa da –enpleguaren % 3, guztira–. Nafarroan, zortzi mila pertsona ingurukoa da, eta enplegu osoarekiko proportzioa ere antzekoa da.

Ahalmen ezohiko eta pribilegiatu hori aprobetxatzeak eskatzen du azpimarra jartzea eta zilegizko bermeak eskaintzea artisten, sortzaileen eta kultur arloko langileen lanerako. Baldintzak ez badira zilegizkoak eta haien errealitatera egokituak, eta ez badute berme eraginkorrik eskaintzen haien jarduerara aurrera eramateko, ezinezkoa izanen da sormenaren eta kulturaren industria garatzea.

Potentzial hori guztia gauzatu liteke, bakarrik, hainbat baldintza, segurtasun eta politika publikoekiko sinergia egonen balira, haren balio-katearen konplexutasuna eta berezitasuna ulertuko luketena, hartara ahalbideturik potentzial hori guztia osorik garatzea; kasu honetan, enpleguan balioa sortzekoa eta ekonomian balio erantsi handiko iturriak garatzekoa.

Hori guztia lortzeko ezinbesteko zutabea da sormen-lanaren alderdi guztiak aitorturik egotea eta sormen-lan hori baldintza duin eta justuetan egitea. Artisten eta sortzaileen lan-bizitza prekarioa izan ohi da berez, aldizkakotasunak eta informaltasunak estrukturalki markatua, eta kotizazio-araubidean definitutako formulak ez zaizkio ongi egokitzen lanbide- eta produkzio-errealitate horri. Sormenaren eta egileen egoera berez ez da ona, pentsio justu bat lortzeko orduan lan-jarduera gisa onartzeari dagokionez, eta are prekarioagoa da erretirorako urratsa egiten denean, zuzeneko penalizazioa baitauka.

2012az geroztik, Espainiako Gobernuak Gizarte Segurantzari buruzko araudiaren irakurketa oso murriztailea eta are okerra egin zuelako, 65 urtetik gorako sortzaile guztiak honako aukera hauetakoren bat baliatu beharra daukate: Beren pentsioa kobratzen jarraitu; hori eginez gero, ordea, uko egin behar diete ikastaroengatik, artikuluegatik eta hitzaldiengatik ordainsari bat kobratzeari eta beren lanari esker sortutako egile-eskubideei, baldin eta horren bidez lortzen dituzten diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren urtealdi bateko zenbatekoa gainditzen badute. Bestela, eta hori are okerragoa da, pentsioari uko egin eta beren sormenaren fruitua eskaintzen jarrai dezakete, eta dagozkien egile-eskubide zilegiak jasotzen jarraitu.

Paradoxa bat eta egile-lanaren berezko nolokotasunarekiko kontraesan bat gertatzen da halatan; izan ere, helduaro horrek denboran bat egin behar du eskarmentuaren kariatara egile horren unerik eta lanik handienak sortzeko loraldi batekin. Baina, gainera, interpretazio horrek tratu berezitua eta are diskriminatzailea dakar erretiro-pentsioei buruzko Gizarte Segurantzaren arauen aplikazioari dagokionez, pentsio hori jasotzearekin bateragarriak izan daitezkeen errenten edo diru-sarriren jatorriaren arabera.

Gizarte aurreratu bat da, hain zuzen ere, talentua, sormena eta kultura beren balioarengatik aitortzen eta sustatzen dituen, eta ezin du inolaz ere zigortu hori guztia garatzea. Ez da arrazoizkoa, ezta desiragarria ere, bere egileek sormenaren arlo guztietan egindako lanaren balioarengatik aitortpena lortu duen herri batek ez edukitzea bidezkoak eta eskuragarriak diren tresnak erretiro-

an zehar egindako lana sustatzeko, gizarte gisa gure garapenari egindako ekarpen itzel eta ordainezinaren arabeko pentsio duin bat bermatuko dutenak eta beren lanaren balio sozialaren behar bezalako aitortzaren erakusgarri izanen direnak.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du:

1. Egungo legediaren aldaketa susta dezan, halako moduan non bateragarria deklaratu ahalko baita Gizarte Segurantzaren araubideko pentsio publikoak kobratzea eta egile-eskubideengatik diru-sarrerak jasotzea. Aldaketa hori egin bitartean, proposatzen da araudia lan horren kultur interesari erreparatuta interpretatzea, halako moduan non erretiroa hartu duten egileen sormen-lanaren jarraipena erraztuko baita.

2. Gobernuak neurri hori hartu arte, espediente guztiak geldiaraz daitezten, pentsioaren zenbatekoak erreklamatzeko aldera nahiz araudi soziolaborala urratzeagatik gaur egun izapidetzen ari direnak.

Halaber, Gizarte Segurantzaren araudia 1. puntuan adierazten den moduan aplikatzen denean, atzeraeraginez aplikatu dadin, halako moduan non:

a) Gizarte Segurantzaren Administrazioak ofizioz itzuliko baititu alde aurretik egindako etenaren ondorioz zor diren pentsioen zenbatekoak, eta Enpleguaren eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak orain arte egin duen interpretazioaren ondorioz erretirodunei bidegabeki eskatutako diru-sarrerak itzuliko baitizkie.

b) Gizarte Segurantzaren Administrazioak nahiz Lan arloko Administrazioak abiarazitako arau-hauste prozedura guztiak balio gabetuko baitira, bai eta, kasua bada, ezarri diren zehapenak ere.

3. Elkarrizketa prozesu bat abiaraz dadin sindikatuekin, sektorearen ordezkariak duten erakundeekin eta egile-eskubideak kudeatzen dituzten entitateekin, Artistaren eta Sortzaileen Estatutu bat egin ahal izateko, lan-jarduera horretan aldizkakotasun-eredu bat jasoko duena, kulturgile-lanbidea errealitate berezi gisa ulertuta, mekanismo koherenteak behar dituen kotizazioari, kontratazioari eta osasun-, amatasun- nahiz langabezia-kontingentzietan dagokienez eta, oso bereziki, sortzaileen eta artisten erretiro duin eta bidezko bat bermatzeari lotutako kontingentzietan dagokienez.

Iruñean, 2016ko urriaren 3an

Foru parlamentariak: Consuelo Satrustegui Marturet, Miren Aranoa Astigarraga, Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan dislexia duten ikasleei hezkuntza-inklusioaren printzipioa bermatzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hartu beharreko neurriak har ditzan dislexia duten ikasleei hezkuntza-inklusioaren printzipioa bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan dislexia duten ikasleei hezkuntza-inklusioaren printzipioa bermatzeko.

Dislexia irakur-idazketaren ikaskuntzaren nahasmendu bat da, iraunkorra eta espezifikoa, inolako eragozpen fisiko, psikiko edo soziokulturalik ez duten haurrengan ematen dena eta jatorria, antza, neurogarapenaren nahaste batean izan dezakeena. Dislexia daukaten hurrek, berezitasun hori dela-eta, zailtasunak izan ohi dituzte, adibidez, alfabetoa buruz esateko, letrak izendatzeko, errima errazak egiteko eta soinuak aztertu edo sailkatzeko. Irakurketak ezaugarri du, orobat, omisioak, ordezkapenak, inbertsioak edo gehikuntzak egitea, astiro irakurtzea, duda-mudaz irakurtzea edo ulermen-defizita izatea.

Hortaz, irakurtzeko eta idazteko zailtasunak edukitzea baino askoz ere gehiago da dislexia, zeren ulermen arazoak, buruz ikastekoak nahiz hiztegia bereganatzekoak baitaude; kasu bakoitza, esana dagoenez, besteak ez bezalakoa da, eta ez

dira beti sintoma edo hezkuntza-premia guztiak nabarmen azaltzen. Oztoporik nagusiena da ikaskuntzak kode idatziaren bidez egin ohi direla nagusiki gure hezkuntza-sisteman; hortaz, haur dislexikoak ezin izaten ditu zenbait eduki bereganatu, ez baita irakurketaren bidez esanahira iristeko gauza.

Dislexia duten ikasleek hainbesteko ahalegina egin behar dute irakur-idazketan non komorbilitate-zailtasunak eduki baititzakete, kontzentrazioarekin, nekearekin, arretarekin eta eskola-lan zehatz batzuk errefusatzarekin lotuak. Zenbaitetan, irakasleek interpretatzen dute jarrera horrek interesik eza adierazten duela, eta presioa egiten dute ahalegin handiagoa lortzeko. Dislexia tratatu egin daiteke, eta emaitzak oso positiboak izan daitezke. Horretarako, funtsezkoa da diagnostia garaiz egitea eta zer dislexia-mota den zehaztasunez jakitea. Tratamenduak erabat pertsonalizatua behar du izan, eta eboluzio-garapenari eta sintoma behagarriari egokitua; haur bakoitzak hezkuntza-premia zehatz batzuk izanen ditu, esku-hartze ezberdinak beharko dituztenak.

Dislexia duten ikasleek berariazko laguntza-baliabideak beharko dituzte eskola-testuinguruan, edozein eskolaren testuinguru arruntean eman behar direnak; horrek ez du esan nahi hezkuntza-ingurune berezi eta beren adineko gainerako haur eta gazteenaz bestelakorik behar dutenik.

Hezkuntza ereduari buruzko kezka eta zalantza une hauetan, funtsezkoa da oztoporik gabeko hezkuntza bat bermatzea, non haur bakoitzak, gazte bakoitzak, pertsona bakoitzak, bere ahalmen guztiak garatuko baititu.

Halere, hori guztia ez dago bermatuta hezkuntzaren arloan egin diren murrizketen ondoren, zeinen ondorioz irakasle gutxiago eta eskola-ordu gehiago baitaude, halako moduan non murriztu egin behar izan baitira laguntzak, bikoizketak, tutoretzak edo banakako lagun-egiteak.

Hezkuntzan egin diren murrizketek ahulenera izan dute eragina, eragotzi egiten dutelako behar adina inbertitzea aukera-berdintasuna bermatuko duen hezkuntza-politika bat lortzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du dituen eskumenen esparruan hezkuntzarako eskubidea berma diezaien dislexiadun haurrei beren eskola-bizitza osoan zehar, eta eraginkor egin dezan dislexiadun ikasleen hezkuntza-inklusioaren printzipioa. Hartara, honako jarduketak hauek egingen ditu:

– Irakasle arrunten nahiz pedagogia terapeutikoko eta entzumeneko eta hizkuntzako irakasleen prestakuntza eguneratua funtsean sustatu.

– Protokoloak helarazi, eskola-testuinguruan sor daitezkeen hezkuntza-premien detekzio goiztiarra areagotzeko.

– Beharrezkoak diren laguntza jarriko dela bermatu, bai eta jarraipena emanen zaiola ere hezkuntza-etapa guztietan zehar, derrigorrezkoek harago.

– Beharrezkoak diren hezkuntza- eta giza baliabideak jarri neurri horien eraginkortasuna lortzeko.

Iruñean, 2016ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da inola ere ez dezan aplikatu uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioak arautzen dituenak.

EH BILDU NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita inola ere ez dezan aplikatu uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioak arautzen dituenak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko, zeina 9-16/ITP- 00015 espediente-zenbakiko jabelduratik heldu baita.

Uztailaren 29an, Ministroen Kontseiluak Errege Dekretu bat onetsi zuen, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioak arautzen dituenak.

Nafarroan, hezkuntza-eragile ia-ia guztiek arbuaiatu dituzte proba horiek. Errebalida horiek jasotzen dituen LOMCE (Hezkuntzaren Kalitatea

Hobetzeko Lege Organikoa) bera arbuaiatu egin zuen Parlamentu honek.

Gure ustez, beharrezkoak dira gizartearen eta hezkuntza-erkidego osoaren akordioa eta parte-hartzea, baldin eta gure hezkuntza-errealitatearen araberrako araudi bat lortu nahi badugu. Hori dela eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan inola ere aplikatu uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioak arautzen dituenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du LOMCE-Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa arbuia dezan, legea indargabetzearen aldeko apustua egin dezan eta jarrera irmoa izan dezan legearen garapena geldiarazteko, segurtasun juridikoa betiere bermatuz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrera irmoa izan dezan, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sistemarentzat egitura- eta antolaketa-autonomia nahikoa lortze aldera, hezkuntza-araudia nafar gizartearen berariazko ezaugarri, interes eta beharrezanetara egokitu ahal izateko.

4. Hori guztia lortze aldera, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eztabaida politiko eta sozial bat abiaraz dezan ukitutako eragile guztiekin (irakasleak, ikasleak, guraso-elkarteak, sindikatuak...).

Iruñean, 2016ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroaren armarrria jar dezan Nafarroako Jauregiaren fatxada nagusian, Foruaren Hobekuntzak ezartzen duenaren arabera.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroaren armarrria jar dezan Nafarroako Jauregiaren fatxada nagusian, Foruaren Hobekuntzak ezartzen duenaren arabera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko kide José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkurarako, heldu den urriaren 10eko Mahaiaren eta Eledunen Batzarrean urgentziaz izapidetzeko.

Nafarroako Gobernuak San Fernandoren Gurutze Erramuduna kendu du oraindik orain Nafarroako Jauregiaren fatxada nagusiko frontoiko Nafarroaren armarririk eta frontoi hori apaintzen zuten eskultura-multzotik.

Eskultura, Fructuoso Orduñak egina, 1951n jarri zen. Aipatu eskulturan, Nafarroaren armarrria irudikatzen zen, Gurutze Erramudunarekin eta jantzi klasikoekiko bi gizona artean. Eskultura-multzoa, zeina bere jatorrizko blokeetan desmuntatu baita, jakin denez, Vianako Printzea Erakundeari igorriko zaio, kontserbatu dadin.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Jauregiaren fatxada nagusian Nafarroaren armarrria jar dezan, Foruaren Hobekuntzako 7. artikulua lehen idatz-zatian xedatzen denaren arabera:

“1. Nafarroako armarrria osaturik dago hondo gorriaren gainean paraturiko urrezko kateez, kate-mailazko zortzi besoen elkargunean esmeralda bat dutela, eta orenen gainean, berriz, errege koroa, antzinako Nafarroako Erresumaren sinboloa.”

Iruñean, 2016ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Adierazpen instituzionala, Osasun Mentalaren Nazioarteko Eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du Osasun Mentalaren Nazioarteko Eguna dela-eta mundu osoko kolektiboek antolatutuzten ospakizunekin.

2. Bere egiten du Osasun Mentalaren Nazioarteko Egunaren goiburua: *Zu bezalako naiz, oraindik ez badakizu ere.*

3. Bere burua partaide sentitzen du Espainiako Osasun Mentaleko Konfederazioko “Comité Pro Salud Mental en Primera Persona” Batzordeak prestatutako adierazpenean aipatzen diren gaietan.

4. Zainduko du Nafarroan osasun mentalaren arretak gure erkidegoko osasun mentaleko beharriazanei erantzuten diela.”

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baititu Landa Emakumeen Nazioarteko Eguna, Elikaduraren Nazioarteko Eguna eta Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna direla-eta Nazio Batuen Erakundeak egin dituen adierazpenak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Landa Emakumeen Nazioarteko Eguna, Elikaduraren Nazioarteko Eguna eta Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna direla-eta

Nazio Batuen Erakundeak egin dituen adierazpenak.

2. Nafarroako Parlamentuak lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen du, adierazpen horietan zehaztutako helburuak lortze aldera.”

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere gaitzespena adierazten baitu Iruñeko Artzapezpiku Jauregiko fatxadan egindako eraso dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere gaitzespena adierazten du Artzapezpiku Jauregiko fatxadan agertu diren pintadengatik, bizikidetzaren aurkakotzat jotzen dituelako.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazi nahi dio Artzapezpikutzari eraso horien aurrean, eta gizarte demokratiko baten oinarriek errespetua eta tolerantzia izan behar dutela berresten du.”

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie edoskitze naturala sustatzeko Nafarroan garatzen ari diren kanpainei, edoskitze naturalaren astea dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die edoskitze naturala sustatzeko Nafarroan garatzen ari diren kanpainei, Garapen Iraunkorrerako Helburu berrien arabera, edoskitze naturalaren astea dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuak erakunde guztiak eta gizarte zibila gonbidatzen ditu konpromisoa

har dezaten jarduera horren aldeko neurriak ezartzeko, jardueraren onurak nabarmentzearren.

3. Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du «Lacta Navarra» kanpainari atxikitzea.

4. Nafarroako Parlamentuak “edoskitze-leku” deklaratzeko dituen Legebiltzar honetako instalazioak”

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Haiti Errepublikako herriaren saminarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Haiti Errepublikako herriaren saminarekin, ezbeharraren aurrean bere elkartasuna adierazten du, eta bat egiten du eman dakioken laguntzarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak bere maitasun eta estimu beroenak helarazten dizkie Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren haitiarrei, baita Karibeko herrialde horrekin lotura duten pertsona guztiei ere.

3. Nafarroako Parlamentuak GKE, gizarte zibil eta erakunde publiko eta pribatu guztiei dei egiten die, bat egin dezaten Haiti Errepublikako herriarentzako laguntza solidario eta humanitarioarekin.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere laguntza eta lankidetzaren eskain diezazkion Haitiko herriari.

5. Adierazpen hau Haitiren Espainiako enbaxadari helaraziko zaio.”

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu Defentsa Ministerioak Bardeako tiro poligonoan programatutako su errealeko maniobra militarrek, eta bertan behera utz daitezkeen exijitzen baitu.

AKATS ZUZENKETA

Irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean akats bat aurkitu da eta, beraz, zuzendu beharra dago. Izan ere, 6. orrialdean argitaraturiko adierazpen instituzionalean (Eledunen Batzarrak irailaren 19an onetsia) 4. puntua falta da. Horrenbestez, testu osoa argitaratzen da oraingoan:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten ditu Defentsa Ministerioak Bardeako tiro poligonoan irailaren 27rako eta 28rako programatutako su errealeko maniobra militarrek, eta bertan behera utz daitezkeen exijitzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela Defentsa Ministerioak urgentziaz desegin dezan Bardeako tiro-poligono militarra.

3. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die Bardean irailaren 27rako eta 28rako programatutako su errealeko maniobra militarren aurka deitzen diren mobilizazio-deialdiei, eta herri-tarrei dei egiten die mobilizazio horietan pare har dezaten.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezkoa jotzen du gastu sozialetarako eta langabeziari aurre egiteko balia ditzen tiro poligonoarentzako eta tiro-nahiz bonbardaketa-praktikak egiteko erabilitako baliabide ekonomikoak.

5. Adierazpen hau Nafarroako Gobernuari, Defentsa Ministerioari eta Bardeako Komunitateari igorriko zaie.”

Iruñean, 2016ko urriaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei begira NUPen finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei begira NUPen finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da Nafarroako Gobernuak daukan jarrera 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei begira, NUPen finantzaketa dela-eta?

Iruñean, 2016ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuari atxikitako Nafarroako Gobernuaren haur-eskolei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuari atxikitako Nafarroako Gobernuaren haur-eskolei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako lehendakariordeak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Eskubide Sozialetako Departamentuari atxikitako Nafarroako Gobernuaren zazpi haur-eskolei dagokienez,

Noizko aurreikusten du departamentuak horie hezkuntza-izaera ematea, dagokien bezala, kudeaketa Hezkuntza Departamentuari eskualdatuz, kasua bada, edo horrekin batera lan eginez?

Zazpi eskola horietatik, batean ere ez al da euskaraz egiten? Asmorik al dago hizkuntza-banaketa hoberik aztertzeke?

Ba al dago planik zazpi haur-eskoletara sartzeko tasak eta baremoak aldatzeko, Nafarroako errealitate ekonomikoarekin neurri handiagoan bat datorrenik eta biztanle guztiei sartzeari ahalbidetzen dienik?

Ba al dago ezarrita lan-kronogramarik, Nafarroako haur-eskoletarako (0-3 urte) irtenbide onena elkarrekin aztertzeke, kontuan hartuta Udalen Federazioa, Iruñeko Udala eta 0-3 Plataforma?

Iruñean, 2016ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Ernai taldeko militanteek Nafarroako Jauregiaren fatxadaren aurrean barne ministro Jorge Fernández Díaz jaunari “faxista” deitzen zion pankarta bat jarri izanari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, Ernai taldeko militanteek Nafarroako Jauregiaren fatxadaren aurrean barne ministro Jorge Fernández Díaz jaunari “faxista” deitzen zion pankarta bat jarri izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Irailaren 29an Ernai taldeko militanteek tamaina handiko pankarta bat eskegi zuten Nafarroako Jauregiaren fatxadaren aurrean ipinitako aldarmioetatik. Pankarta horretan, Barne ministro Jorge Fernández Díaz jauna “faxista”tzat jotzen zen.

– Identifikatu al ziren ekintza horren egileak?

– Salaketarik jarri al zaie?

– Zergatik ez zen galarazi delituzko jarduketa hori?

– Jakinda terrorismoaren urteetan ETAk sistematikoki erabiltzen zuela “faxista” hitza pertsonen eraiketa justifikatzeko, ezker abertzaleko erakunde batek erretorika hori erabiltzeak bere erradikalizazioa erakusten al du, Nafarroako Gobernuaren ustez?

– Erretorika hori programa-akordioan aldarrikatzen den bizikidetzaren sustapenarekin bat datorrela uste al du?

– Ernaiaren edo ezker abertzalearen ordezkariari zuzendu al zaie, gertaera horien gaineko ikerketa egiteko?

Iruñean, 2016ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Hezkuntza Departamentuak 2017an lan-eskaintza publikoa deitzeko asmoa izateari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak 2017an lan-eskaintza publikoa deitzeko asmoa izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran erantzun dakion:

– Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik 2017an lan-eskaintza publikoaren deialdia egiteko?

– Noiz?

– Zenbat lanpostu?

– Zein lanpostu?

Corellan, 2016ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak sindikatuekin eta enpresa-erakundeekin adostuko duen 2016tik 2019ra bitarteko Enplegu Plana.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak sindikatuekin eta enpresa-erakundeekin adostuko duen 2016tik 2019ra bitarteko Enplegu Plana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutalderi atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

2016ko irailaren 20an, Nafarroako Gobernuak 2016tik 2019ra bitarteko Enplegu Planaren zirriborroa aurkeztu zuen; plan hori funtsezko tresna da Foru Komunitateko enplegu politikak kudeatzeko.

Ayerdi lehendakariordeak azaldu zuenaren arabera, Gobernuak “adostasun sozial eta politiko zabalena” lortu nahi du planaren inguruan, kalitateko enplegua sortzea Nafarroako Gobernuaren “helburu nagusia” dela kontuan hartuta.

Adostuko al du Nafarroako Gobernuak 2016tik 2019ra bitarteko Enplegu Plana sindikatuekin eta enpresa-erakundeekin?

Iruñean, 2016ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, “Lan osasunaren plana betetzeko inbertsioak” kontusailaren betetze mailari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, “Lan osasunaren plana betetzeko inbertsioak” kontusailaren betetze mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak diru-laguntza deialdi bat onetsi zuen, 1.075.000 euroko zuzkidura duena, 150 langile baino gutxiago dituzten enpresek laneko ekipoak eta lantokiak egokitzeko inbertsioak egin ahal izateko.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak “Lan osasunaren plana betetzeko inbertsioak” ize-neko 810012 81500 7709 494100 kontusailaren betetzeari buruz?

Iruñean, 2016ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, 2016-2017 ikasturterako beka-deialdi orokorrari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, 2016-2017 ikasturterako beka-deialdi orokorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak 2016-2017 ikasturterako beka-deialdi orokorra noiz egiteko asmoa du?

Corellan, 2016ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Sarrigurenen institutu bat eraikitzeke asmoa izateari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak Sarrigurenen institutu bat eraikitzeke asmoa izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

- Hezkuntza Departamentuak ba al du Sarrigurenen institutu bat eraikitzeke asmorik?
- Zer egutegi ezarri du institutua eraikitzeke?
- Zer aurreikuspen ezarriko du 2017ko aurrekontuan horretarako?
- Zenbat ikaslerentzat izanen da? Zer lerro edukiko ditu?

Corellan, 2016ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, 2015ean eszedentzia hartzeko laguntzak eskatu zituzten langileei buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, 2015ean eszedentzia hartzeko laguntzak eskatu zituzten langileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan:

- Zenbat langilek eskatu dituzte eszedentzia hartzeko laguntzak 2015ean?
- Zenbat pertsonak hartu dute eszedentzia bat 2015ean?

– Emanen al dizkiguzue eskatutako nahiz onartutako eszedentzia horiei buruzko datuak 2014koekin alderatuta?

– Zer familia-egoera edo justifikazio azaldu dute eszedentzia hartzeko? Hau da, zer familia-egoerak bultzatuta hartu den eszedentzia.

Honako hauek zehaztea nahi dut:

Zer eszedentzia diren adingabeak edo laguntza-premia bereziak dituzten nagusiak zaintzeko, edo bigarren edo hurrengo seme edo alabaren

jaiotzagatikoak, edo ezgaitasuna edo mendekotasuna duen seme edo alaba bat artatzekoak, deialdian jasotako parametroen arabera.

Beste jaiotza bat dela-eta adingabeak zaintzeko eszedentzia; adopzioa edo urtebete baino gehiagoko harrerak; erditzeak, adopzioak edo harrera anizkoitzak, deialdian jasotako baldintzen arabera.

Iruñean, 2016ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, jakitekoa suhiltzaile izateko probak gainditu dituzten lehiatzaileak zergatik ari diren egiten Osasun-larrialdietako Teknikari izateko Erdi Mailako Heziketa Ziklo bat Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa suhiltzaile izateko probak gainditu dituzten lehiatzaileak zergatik ari diren egiten Osasun-larrialdietako Teknikari izateko Erdi Mailako Heziketa Ziklo bat Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta

hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Suhiltzaile izateko probak gainditu dituzten azken lehiatzaileak zergatik ari dira egiten Osasun-larrialdietako Teknikari izateko Erdi Mailako Heziketa Ziklo bat?

Osasun-larrialdietako Teknikari izateko Erdi Mailako Heziketa Zikloa osorik egingen al dute? Zikloaren iraupena 2.000 ordukoa da.

Osasun-larrialdietako Teknikari izateko Erdi Mailako Heziketa Zikloa eskaini al zaie bestelako ikasle batzuei?

Hezkuntza Departamentuaren ustez, ba al dago beharrik Osasun-larrialdietako Teknikari izateko Erdi Mailako Heziketa Ziklorako plazak ateratzeko?

Hezkuntza Departamentuaren ustez, Osasun-larrialdietako Teknikari izateko Erdi Mailako Heziketa Zikloa lanbide-irtenbide bat al da ikasketa ezberdinak egiten ari diren edo langabezia dauken ikasle askorentzat?

Corellan, 2016ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako zinemagintzari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako zinemagintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak hona-

ko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zinemagintzak, gure lurraldean, balio artistiko eta kultural ukaezina edukitzeaz gain, jarduera ekonomikoa eta gure lurraldea sustatzea esan nahi du; eta hori, jakina, oso interesgarria da. Horri buruz, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

1. 2010etik gaur arte garatutako zinemagintza-ekoizpenen kopuruari buruzko datu eskuragarriak.

2. Jarduera horrek oro har Nafarroaren ekonomiarako eta zehazki administrazio publikoen diruetarako ekarri duen emaitza ekonomikoari buruzko datu eskuragarriak.

Iruñean, 2016ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, familientzako 2016ko politikari buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, familientzako 2016ko politikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita

dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan:

– Zertara bideratu eta bideratzen dira 2016an aurrekontuan jasotako familia-politikak?

– Zehaztu al zenitzake haur txirotuentzako nahiz familientzako laguntzak direla-eta egindako jarduketak?

– Zein da familia-politikan esleitutako aurrekontua, eta zein gaur arte betetakoa?

– Eskubide Sozialetako Departamentua zer jarduketa-plan ari da egiten haurrak bizi diren ingurunea hobetzeko?

Iruñean, 2016ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech

Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean atzerritartasun-txostenak egiteko jarduketa-protokoloari buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean atzerritartasun-txostenak egiteko jarduketa-protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkeztzen du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan:

– Zein da Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko jarduketa-protokoloa, atzerritartasun-txostenak egiteari buruz?

– Familia berriro batzeko, gizarte-sustraitzeari buruzko eta egoitza-baimena berritzeko zenbat eskabide jaso dira 2015eko abuztutik?

– Familia berriro batzearekin, gizarte-sustraitzearekin eta egoitza-baimena berritzearekin zerikusia duten zenbat txosten eman dira 2015eko abuztutik?

– Familia berriro batzea eskatzea dela-eta, etxebizitzaren egokitasunari buruzko zenbat ziurtagiri eman dira 2015eko abuztutik?

– Integrazio-graduari buruzko zenbat ziurtagiri tramitatu dira 2015eko abuztutik, gizarte-sustraitzera iristeko, aldi baterako egoitza-baimena berritzeko eta familia berriro batzeko baimena berritzeko?

Iruñean, 2016ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

